## EDITORIAL

# Abentura amaigabea

IRAILAREN 25.ean heldu zen berria: euskaldun bik igo zutela Everest mendia. Hurrengo egunean zuzendu egin zen: ez ziren bi soilik izan, lau baino, euretariko bi oxigenorik gabe. Poztasun izugarria denon artean. Astebete geroago beste batek igo zuen, honako honek lagunik gabe. Egun bi beranduago, beste hiruk. Eta bitartean, zazpimilatakoak eta zortzimilatako beste batzu lortzen ziren. Andrazko bik zortzimilatako bat lortua zuten iadanik.

Guztion gogoberoaren erdian, galdera bat errepikatzen zen: zer gertatzen da hemen? Honenbeste urte arrakasta eskasekin Himalayan. Gailurra lortu gabe etxera bueltatu beharra adierazten zuten berriak askotan entzun behar izan ditugu. Zenbat ekinaldi Everestera, arrakastarik gabe, 1980.etik hona. Eta, orain, bapatean, honako nahasteborraste hau. Zein da benetakoa, hau guztiau edo aurreko urteetakoa?

Halaxe da. Emaitzak ez dira berez ateratzen, ezer ezetik. Euskal Mendizaletasunak, Andres Espinosak 1931. urtean Darjeelingen bota zuen galderari erantzunez, ba du bere gradua Himalaya azkengabean. Saiakera eta hildako asko suposatu du. Baina 1992.eko udazkena ereintza-urte guzti hauen emaitza da.

Pyrenaicaren lantaldeak hau danau kontatzea erabaki du. Eta izan da gailur bat denbora record batean egitea bezalakoa. Larrialdizko bilera Bilbon urriaren 16.ean eta proiektu handizale bat martxan jarri da: Himalayan bizi izandako 18 urte hauen historia -historia guztiak- argitaratzea.

Oinarria aldizkaria bera izan da. Zerbaitegatik nahi izan du betidanik Pyrenaicak "euskal mendizaletasunaren historiaren lekukoa" izatea. Protagonistak, Himalayan amets eta negar egin duten gure mendizaleak dira. Beraiekin jarri gara kontaktuan eta erantzuna ezin hobea izan da.

Eta egunetik egunera, lana azkartuz, erlojuaren kontrako lasterketan, "Eskaldunak Himalayan" argitaratu eta Aretxabaletan abenduaren 11.ean azaldu ahal izan da.

Bertan dago dena azalduta. Eta hasi zaitezkete historia irakurtzen amaieratik, aldizkari honen hurrengo orrialdera pasatuz.

# La aventura interminable

**EL 25 de septiembre llegó la noticia: dos vascos habían subido al Everest. Al día siguiente se rectificó: no sólo eran dos, habían sido cuatro, dos de ellos sin oxígeno. Inmensa alegría de todos. Una semana después subió otro, éste en solitario. Dos días más tarde, otros tres. Y mientras tanto, se conseguían sietemiles y otros ochomiles. Dos mujeres habían ya alcanzado un ochomil.**

**En medio del entusiasmo general, una pregunta se repite: ¿qué pasa aquí? Tantos años con éxitos muy contados en el Himalaya. Noticias repetidas de vuelta a casa sin hacer cumbre. El Everest intentado una y otra vez sin éxito desde 1980. Y ahora, de repente, este alboroto. ¿Qué es lo real, esto o lo de los años anteriores?**

**Precisamente. Los resultados no surgen sin más, de la nada. El montañismo vasco, respondiendo a la pregunta que formuló Andrés Espinosa en Darjeeling en 1931, ya tiene su escaño en el inmenso Himalaya. Ha costado muchos intentos y unos cuantos muertos. Pero el otoño de 1992 es el fruto de todos estos años de siembra.**

**El equipo de Pyrenaica se ha lanzado a contarlo. Y ha sido como hacer una cumbre en un tiempo récord. Reunión de urgencia en Bilbao el 16 de octubre y puesta en marcha de un ambicioso proyecto: publicar la historia - todas las historias - de estos 18 años de aventura en el Himalaya.**

**La base ha sido la propia revista. No en vano Pyrenaica pretende ser "el testigo de la historia del alpinismo vasco". Los protagonistas son todos nuestros montañeros que han soñado y llorado en el Himalaya. Se ha contactado con ellos y su respuesta ha sido inmejorable. Y día a día, apurando fechas en una carrera contra reloj "Vascos en el Himalaya" se ha podido publicar y presentar en Aretxabaleta el 11 de diciembre.**

**En él está todo explicado. Y podéis empezar a leer la historia por el final, pasando a la siguiente página de esta revista.**

**Txomin Uriarte**